



Intxaurrondo

Baxu jotzaile bila

Auzoko zenbait gaztek 14 eta 20 urte bitarteko baxu jotzaileak behar dituzte musikatzailea asaitzeko. Taldekoekin harremanetan jarri nahi duenak 943 270165 edo 677 029285 telefono zenbakira deituz gero.

gainean eta 124 lur azpian. Renfek, aldiz, 40 autorentzako tokia aurreikusi du, guztiak lur gainean. "Aparkatzeko arazo larria dago Intxaurrondon. Hortaz, funtsezkoa da trenbideko obrekin batera aparkalekuak egitea, bai lur gainean eta baita lur azpian ere. Batik bat, kontuan hartuta hemendik gutxira Zubiaurre pasealekuko garai bateko Lamourous ikastetxean zaharrentzako egoitza zabalduko dutela eta bertan autoentzako leku gutxi egongo dela", diote IZBEkoek.

"Nabarmen" aldatzen

Kontuak kontu, behin betiko proiektua Udalak onartu behar du, eta duela gutxi udal teknikari batzuek Renferen proiektuaren bideragarritasuna zalantzan jarri zuten. Horregatik, Hirigintza zinegotzi Jorge Letamendiak jakinarazi digunez, Renfe aurkeztutako proiektua "nabarmen" aldatzen ari da. Itxaron beharko da, beraz, azkenean zenbat metro estaliko dituzten eta zenbat aparkaleku egingo dituzten jakin ahal izateko.

Aldaketak trenbidea estaltzeko proiektuan

lazko urrian ezagutarazi zuen Renfek Intxaurrondoko trenbidea estaltzeko eta auzoan bertan tren geltokia egiteko proiektua. Auzotarrak zein udal teknikariak ez ziren bat etorri egitasmoarekin eta, horregatik, Renfe proiektua moldatzen ari da.

Intxaurrondo Zaharreko Bizi-lagunen Elkarteko kideak zur eta lur geratu ziren urrian Renferen asmoen berri izan zutenean. Izan ere, proiektu horren eta urtebete lehenago Carlos Sanchok -garai hartako Proiektu eta Obra Saileko zinegotzia- aurkeztutako zirriborroaren artean alde handia zegoen. Funtsean, estali beharreko metro kopu-

ria eta aparkaleku kopurua aldatu egin ziren. Sanchoren zirriborroaren arabera, 431 metro estali behar zituzten. Renferen proiektuan, berriz, 165 metro besterik ez. "Renferen egitasmoa ikusita, badi-rudi, trenbidea estali ordez, Intxaurrondon egin beharreko tren geltokia besterik ez dutela estali nahi. Gure ustez, funtsezkoa da ahalik eta zati-

rik handiena estaltzea, urte luzez eskatu dugun plaza egin ahal izateko", diote auzo elkartekoek.

Aparkaleku premia

Aparkalekuei dagokienez, Sanchoren zirriborroan 254 autorentzako lekua zegoen: 130 lur

IZBE: «Badi-rudi tren geltoki berria baino ez dutela estali nahi»

Argitalpen honen edizioan lankide:



kutxa
gizarte ekintza